

1.- Konposatu gaseoso baten lagin bat, 1,27 g-ko masa duena, 0,762 g oxigenoz eta 0,508 g sufrez osatuta dago. Jakinda 0,089 g konposatuk 25 ml betetzen dituztela, presio eta tenperatura normaletan neurtuta, kalkulatu formula enpirikoa eta molekularra.

Masa atomikoak: O=16; S=32.

(Em: SO_3)

2.- Dinitrogeno tetraoxido 276g-ko lagin dugu. Eskatzen da:

- a) Zenbat mol diren. (3 mol)
- b) Zenbat molekula dauden. ($1,81 \cdot 10^{24}$)
- c) Zenbat mol-atomo oxigeno dauden. (12)
- d) Zenbat atomo dauden. ($1,1 \cdot 10^{25}$)
- e) Nitrogeno masa portzentaia. (%30,43)

Masa atomikoak: N:14; O=16

3.-Pertsona batek gosarian 10^{28} glukosa molekula jaten ditu ($\text{C}_6\text{H}_{12}\text{O}_6$). Kalkulatu:

- a) Zenbat mol glukosa jan dituen. (16603)
- b) Zenbat gramo glukosa jan dituen. (2988540)
- c) Zenbat atomo jan dituen. ($2,4 \cdot 10^{29}$)
- d) Zenbat masa hidrogeno jan duen. (199236)
- e) Hidrogenoaren masa portzentaia. (%6,67)

Masa atomikoak: C=12; H=1; O=16

4.- Konposatu gaseoso lagin bat, 0,188 g-koa analizatu dugu, eta emaitza hauek lortu dira: bolumena, egoera normalean neurtuta: 100ml; konposizio ehundarra: %85,7 C eta %14,3 H. Kalkulatu konposatuaren formula enpirikoa eta molekularra.

Masa atomikoak: C=12; H=1

(Em: CH_2 ; C_3H_6)